



Iritziak

Otsoen kontra



ESTITXU GARAI ARTETXE
EHU-KO IRAKASLEA

Hauteskundeen ajea kendu gabe gaude eta berriro kanpainan bete-betean. Joan dira Espainiako Estatuaren hauteskunde orokorrak. PSOEk aise irabazi ditu, garbi erakutsita Pedro Sánchezek asmatu zuela hauteskundeak aurreratzen. Ondo irakurri zuen Andaluziako hiruko gobernu-akordio eskuindarrak ezartzen zuen marra eta aliantza hori estatu osora hedatzeko arriskuak ezartzen zuen polarizazioa.

Kanpainan guztiek jarraitu dute joko hori, Voxek jotako doinuan dantzan, Alderdi Popularrarentzat (PP) biziki kaltegarria izan dena. Aurretik datorrigun hilabetean Espainiako eskuinean komunikazio politikoko analista eta estrategia-zale guztiek hurbiletik jarraitzeko mugimenduak egongo dira. Voxek lehengo lepotik aterako du burua; Ciudadanosek ere diskurtso atzerakoi, eskuindar eta zentralizatzailean sakontzen jarraituko du *sorpassoa* lortu eta eskuinaren lidergoa irabazteko; eta PP, berriz, jasotako kolpearen ostean birkokatu eta sasoi bateko moderazio faltsua berreskuratu nahian arituko da. Lartxo hilabete bakarrean lortzeko.

Markoa erabat estatala izanagatik ere, Hego Euskal Herrian eta Katalunian independentistek eta abertzaleek oso emaitza onak izan dituzte. Hauteskunde orokorrak beti izan dira plaza zaila, etxetik kanpo jokatzeari, eta horrek meritua bikoizten du. Espainiako politika erabat espektakularizatuta dagoen honetan,

Hego Euskal Herrian eta Katalunian independentistek eta abertzaleek oso emaitza onak izan dituzte. Espainiako politika erabat espektakularizatuta dagoen honetan, zaila zen begirada Madrilgo kalapitatik altxatzea

zaila zen begirada Madrilgo kalapitatik altxatzea. Eskuinaren eta faxismoaren aurrean, bertako alderdiak tresna eraginkor gisa ikustea oso kontuan hartzekoa da. Jeltzaleak EAeko lehenengo indarra dira atzera ere eta lortutako 6 eserlekuak kiniela guztietan agertzen dira Sánchezek babesa lortzeko dituen aukeren artean. Zenbakiei erreparatuta, ordea, ERC-EH Bildu aliantzak lortutako 19 eserlekuak dira PSOE eta Podemosen batuketari gehiengo osoa emango liokeenak bakarrik. PSOEren ingurumariak adierazi du jada bakarrik gobernatzeko nahia. Horregatik alderdi independentistek inbestidura aurretik jokatu behar dute partida behinena eta Sánchezen gobernu ahalbidetzeko gutxiengoak orain ezarri behar dira. Behin inbestidura lortuta, bidea nabarmen errazten

zaio Sánchezi bateko zein besteko babesak bilatzeko.

Hauteskunde hauen eragina, alabaina, ezin da mugatu Espainiako Gobernu osaketari nola eragingo dioten aztertzerara. Udal eta foru hauteskundeak hilabete eskas barru izango dira, eta oraindik erabakigarriago dena: Nafarroako parlamentuko hauteskundeetan atarian gaude. Jakina da bozka emateko irizpideak aldatzen direla, baina hautes-zita bien artean hain tarte laburra egoteak Espainiako alderdiei egiten zien mesede a priori, zalantzarik gabe.

Zeharo hauteskunde ezberdinak izan arren, jada eskuartearen ditugun Estatuko emaitzek joerak aztertzeko balio dute, bederen. Navarra Suma koalizio espainolista indar bozkatuena izan arren, bozka asko galdu ditu eta EH Bildu eta Geroa Bai, ordea, goranzko joeran ageri dira eta gaitasuna erakutsi dute Podemosen boto galerari atarramendua ateratzeko. Nafarroako alderdiak lau gobernuari begira, kezkgarria zen oso Podemosen egoera. Horregatik baikorra da duela lau urte politikoki aktibatuta ziren bozka horiek PSOE ez den beste aukeretara bideratzea. Badirudi hor EH Bilduk izango duela erronka handiena Hego Euskal Herri osoan. Edonola ere, analisi guztiek oso emaitza estuak aurreikusten dituzte Nafarroan eta bateko zein besteko boto aktibazioa izango da giltza. Ez aspertzeko moduko asteak datozkigu. Hurbiletik jarraitu, gozatu eta sufrituko ditugu. ●